

126 ereduak. Finantza erakundeetan kontuetatik datozen errenten gaineko atxikipenen aitortpena

Fitxa interneten bistaratu

INFORMAZIO OROKORRA

Aurkezteko epea

Hiru hilean behin. Apiril, uztail, urri eta urtarrilaren lehen 25 egun naturalen barruan aurkeztu behar da. Hilean behin (6.010.121,04 eurotik gorako eragiketa bolumena dutenek hilero aurkeztu behar dute).

Helburua

Kapital higigarritik datozen errenten gaineko atxikipenak (finantza erakundeetan irekitako kontuetatik datozen errentak).

[Informazio gehiago](#)

Nork tramitatzen du

- OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA
- Zerga Kudeaketako Zuzendariorde Nagusia
- Zuzeneko Zergak Kudeatzeko Zerbitzua

Nori zuzenduta

Finantza erakundeetan irekitako kontuetatik datozen etekinak aurreko hiru hilekoan ordaindu dituzten finantza entitateek aurkeztu behar dute eredu hau.

Baldintzak

Finantza erakundeetan irekitako kontuetatik datozen etekinak ordaindu izana.

HASIERA ETA ESKAERA

Aurkeztu beharreko formularioak eta ereduak

[126 ereduak](#)

Eskaera moduak

» Internet » Presentziala

Internet bidezko eskaera

Ereduen aurkezpena internet bidez, pasahitz operatiboa edo ziurtagiri elektronikoa erabilita:

- 2017ko ekitaldirako eta hurrengoetarako, [ZergaBidea plataformatik](#)
- 2016ko ekitaldirako eta aurrekoetarako, [Gipuzkoataritik](#), bertan dagoen formularioa betez edo fitxategi bat igoz.

Tramitazio elektronikorako beharrezko identifikazioa

» Sinadura elektronikoa/ziurtagiri digitala » Pasahitza

Zuzeneko arretarako bulegoak

1º) [Entitate laguntzaileak](#)

2º) [Herritarren arretarako bulegoak](#) (emaitza zero bada).

Gure webgunean nahiz [estankoetan](#) eskura daitezke inprimakiak.

ARAUDIA

[1201/2002 Foru Agindua](#), abenduaren 3koa, 126 eta 196 ereduak onartzen dituen urtarrilaren 19ko 37/2000 Foru Agindua aldatzekoa